

# Otaola-Kiñarraġa baillaria



San Salvador

# Baserrien planuak

# Otaola-Kiñarra ga baillaria

**O**taola Ballia da Eibarko bost auzuen artian haundi eta ezezagunena. Bizkaiko Zaldibarrekin muga egitten dabene ibur errekatik hasi eta Soraluze aldera, Ego errekiaren hegoaldera daren lur, erreka, mendi eta basarri guztiak Otaola Ballian barruan gelditzen dira. Laupago, Illordo, Galdaramiño edo Kamiñondo gainek eta Otaola, Txaltxakua, Unbe, Txonta eta Errasti errekek osatzen dabe 648.427 hektareako inguru eder hau.

Egixa esan, benetan baillara batek baiño gehixagok osatzen dabe Otaola auzua eta, gauza askotan, baillara bakoitza bestietatik banatuta bizi izan da historixan zihar. Otaola Ballia hiru zati nagusitan zatituta geinke. Alde batetik Isasitik sartalderuntz daguaz lurrak dakaguz. Basarri gehixenak, Isasiko jauregixari eta Otaola-torriari lotuta egon dira gizaldiz gizaldi. Hortik baillariari be Otaola edo Otola izena emotia. Inguru honetako basarritarrek Bizkaiakin (Olarreaga, Eitzaga eta Ermuakin gehixen bat) lotura sendua izan dabe eta honuntzakua baiño haruntzako joera haundixagua euki dabe. Alde horretako basarri batzuen izenak emoterako orduan ezin ahaztuko doguz Otaola Bazterra edo Kamiñokua.

Auzuan bigarren zatixa, erdikua, Unbe, Urki, Ipuru eta Errekatxu inguruko basarrixak osatzen dabe. Sasoi baten dozenaka basarrik betetzen zittuen horrek lurrok, baiña gerrate ostian herrixa zabaltzen hasi zanian, asko eta asko bota egin ziran etxiak egitteko traban zerela-ta. Zelako aberastasuna galdu genduan eibartarrok! Bertatik igotzen zan Elgetara eta alde honetako basarritarrek hartu-emon sakona zeken Elgetakin eta baita Soraluze eta Bergarako basarri batzuekin. Ez dira gitxi izan herrixotatik Urki edota Ipuru aldera ezkonduetako neska-gaztiak.

Amaitzeko, auzuan bestekaldian, sortaldian, Azitain inguruan, beste basarri multzo bat dago. Nahiz eta Otaola Ballian parte izan, honek

basarritarrok askoz lotura haundixagua euki dabe Arrate Ballekuekin Otaola Balleko gainontzekuekin baiño. Auzuari be beste izen bat emoten detse: Kiñarra (edo Kiñarra), inguru honetan kiñar edo txillar ugari zegalako. Baillarako basarrixetan ahoz-aho dabillen ipoiñak hola diño: *“Kiñarra inguru leku pobria da bai! Danian añubia, euzkixari kostau eitten jako bertara sartzia; ta berotasunik ez dauanian garixak eta artuak ezin gora eiñ. Bazan behiñ bertara ezkondu nahi eban neska polit gaztia. Akondia ingurukua izatez, gurasuak larrittuta euazen alaba koittauak ezkondu ezkeru eruan biharko eban bizitza latzaz. Eta holan esan ei etsen: “Zelan ezkonduko haix hara, kiñarra besterik eztaon eta!” Harrezkeru Kiñarra izenagaz ezagutzen da baillara hau”*. Ipoiñak ipoiñ, egixa bakarra zera da: auzo honek izen bi dakazela. Betidanik gainera, historixan zihar Otaola zein Kiñarra (edo Kiñarra) erabili izan dira-ta. Gaur egun izen ofiziala Otaola da, baiña basarritarren artian Kiñarra izena gehixago erabiltzen da.

Hain auzo zabala izanda, ez da harritzekua bertan ezagutu izan dogun basarri-sorta ederra. Otaola Ballian 70 basarri egon dira. Zoritzarrez azken 50 urtietan aldaketa ederra euki dau auzuak eta gehixenak betiko galdu dira. Eibarko hegoaldea iparraldia baiño lauagua danez, gerrate ostian herrixa haunditzen hasi zanian gehixen bat alde horretarutz egin zeban eta Ipuru, San Kristobal, Urki, eta Txonta agertziakin batera, makiña bat basarri juan zan lurrera. Hortxe dakaguz adibiderako Ubitxa, Ferranenekua, Buztinzuri, Sansaburu edo beste hamaika. Autopistiak be beran errua euki dau. Berori be Otaolatik barrena pasatu bihar eta 1970-1975 bittartian beste basarri mordua bota zan auzo honetan (Urkidi Goena, Tutulukua, Iparragirre, Katalangua...). Ondorixua ezin gorrixagua izan. Jatorrizko 70 basarrixetatik, 25 besterik ez dira tente gelditzen diranak eta horretako 7 etxe bihurtu dira. Beste guztiak, 45, betirako galdu dira eta eurekin eruan dabe sekula berreskuratu ezingo dogun gure herrixan historixian eta kulturian zati haundi bat.

## AIAGA / Aixa



**Distantzia:** 2 kilometro

**Altueria:** 145 metro

### FITXA TEKNIKUA

**Egoeria**

Jausitta.

**Datu  
aittagarrixak**

- 1701. urteko agiri zaharretan agertzen da basarri honen gaiñian lehelengo aittamen ezaguna, *Azaga* izenakin. 1747. urtian, barriz, Francisco de Arrieta bizi zala bertan irakurri leike orduko agirixetan.  
- Azitain gaiñian dago, *Itaragori* eta *Arazola* basarrixen artian. Aspalditik dago hutsik (30 urtetik gora) eta erdi tente dagan arren, oso egoera txarrian dago.

## ALTAMIRA BEHEKOA/ Altamira Behekua



**Distantzia:** 1,5 kilometro

**Altueria:** 250 metro

### FITXA TEKNIKUA

**Zer daken**

Bi etxebizitza dakaz. **1** - Norberta Juana San Juan Ledo (83).  
**2** - Aurea Landaluze San Juan (60) eta Francisco Mora (36).

**Datu  
aittagarrixak**

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

- 1950. urte inguruan erosi zeben basarrixa gaur egungo jabiak, Landaluze-San Juantarrak. Ordura arte Bitoriano Sagastume izan zan jabia.  
- Basarri honetatik urten diran pertsonai ezagunen artian, Bitorianon semia, Migel Sagastume, soiñujole ezaguna izan zan.

## ALTAMIRA ERDIK OA / Altamira Erdikua



**Distantzia:** 1,5 kilometro

**Altueria:** 275 metro

**Zer daken**

Antonio Barrio Vicente (57) eta Angela Lucrecia Santos Sánchez (57).

**Datu aittagarrixak**

**ANIMALIXAK:** Oilluak eta unxiak.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

**LURRAK:** 5 hektarea.

- Hau basarrixau urtietan zihar izen desbardin askokin ezagutu izan da. Jatorriz badirudi *Altamira Etxebarri* izena emon jakola. Beranduago, bertan Hipolito izeneko bateron bat bizi zala-ta, *Urkiñi Hipolitonekua* izenakin be ezagutu izan zan. Izen horrekin agertzen da 1812. urteko agirixetan. Azken 150 urtietan, *Urkiñi Santosenekua* eta *Altamira Barri* be deittu izan jako.

- Nahiz eta egiñ zanian basarrixa izan, gizaldi honen hasieran bost etxebizitzatan zatittu zan eta hasierako basarri sena galdu zeban. Azkenengo 50 urtietan eskuz-esku pasatu da eta ugazaba eta errentero ugari euki dittu.

-1987xan gaur egungo ugazabak erosi zeben, dana barriztu eta harrezkero bertan bizi dira.

## ALTAMIRA / Altamira Goikua



**Distantzia:** 3,5 kilometro

**Altueria:** 300 metro

### FITXA TEKNIKIA

**Egoeria**

Felisa Irulegi Uribarri da jabia.

**Datu  
aittagarrixak**

- Basarrixan lehelengo aittamen ezaguna 1747kua da eta urte horretan Andres de Lezeta bizi zan bertan.
- Azken 75 urtiotan Bergaretxetarrena izan da. 1970. urte ingurutik kalian bizi dira.
- Pistarik ez dakan basarri bakarrenetakua da.

## AREETA / Areta



**Distantzia:** 4,5 kilometro

**Altueria:** 300 metro

### FITXA TEKNIKIA

**Zer daken**

Belen Lizarralde Laskurain (70), Frantzisko Etxeberria Lizarralde (41), Maria Isabel Gorrotxategi Retolaza (41), Gorka Etxeberria Gorrotxategi (18), Unai Etxeberria Gorrotxategi (17) eta Ainhoa Etxeberria Gorrotxategi (16).

**Datu  
aittagarrixak**

- ANIMALIXAK:** Behiak eta txahalak (17, larrerakuak) eta astua.
- ORTUA:** Sagarrak, urrak, melokotoiak eta kiwixak.
- 1498ko agirixetan topatu dogu basarri honen gaiñian lehelengo aittamena eta 1747xan Domingo de Areta bizi zan basarrixan.
  - San Salvador ermittian zaindarixak Aretakuak izan dira beti.
  - Ogixa egitteko labia dake eta ganbaran San Blas Santua.
  - Bertako semiak izan dira Andres Etxeberria "Areta" probalarixa eta Jesus Maria "Areta" aizkolarixa.

## AREETA ABELETXE / Areta Abeletxe



**Distantzia:** 4,5 kilometro

**Altueria:** 390 metro

### FITXA TEKNIKIA

#### Datu aittagarrixak

Alberto Rodríguez Barriuso (37), Itziar Sarasketa Ibañez (33), eta Iera Rodríguez Sarasketa (4).

- Jatorriz ardi-txabolia zan. Oñ dala 100 urte inguru Esteban Uriguenek erosi zeban eta basarri bihurtu. Gizaldi honetan zihar Uriguentarrena izan da, oñ dala 10 urte gaur egungo jabiak erosi zeben arte.
- Estebanen semia, Migel Uriguen, oso hargiñ ezaguna izan zan Eibarren. Basarrixa barrizten Esteban hasi bazan be, Migelek emon zetsan gaur egun dakan itxuria. Untzagako musika kioskoa, Azittainen zeguan musika-balkoia eta Areta inguruko basarri asko egiñ zittuan.

## ARKAIZPE / Arkazpe

### FITXA TEKNIKIA

#### Egoeria

Desagertuta. Isasixan zeguan.

#### Datu aittagarrixak

- 1747. urteko basarri zerrendan, Arkazpe basarrixa Diego de Larrañaga bizi zala ageri da. Kale-basarrixa zan.
- XIX. gizaldira arte errotia be izan zan. Sasoi horretan, Nikolas Argiarrok erosi eta Eibarko lehelengo tornillerixia ipini zeban. Orduandittik etxe erdixa basarrixa zan eta beste erdixa tailerra.
- Isasitik behera harkaitza zegualako deitzen ei zan basarrixa Arkazpe eta bertako gizona kapel haundixakin ibiltzen zalako, Kakaardokua izenez be ezagutzen zan.
- Basarrixa atzekaldian kakaardokozubixa zeguan, errekiari beste aldera pasatzeko.
- Gerratia baiño piskat lehenago bota zeben eta lur horrek Alfak hartu zittuan.

## ARRAZOLA

<b>FITXA TEKNIKIA</b>	Egoeria	Jausitta.
	Datu aitagarririk	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Basarrixan lehelengo aittamena 1741. urtekua da. Urte horretan, Raimundo Arizaga bizi zan bertan.</li> <li>- <i>Arazo</i> betxana moduan ezagutzen zan Azittain gaiñeko ingurua. Basarrixan inguruan zelai zabalak zeren eta erromeririk be bertan egitten ziran.</li> <li>- Basarrixa tabernia be bazan eta arku haundi bi zekazen atarixan.</li> <li>- Bertako jabiak Lezetatarrak ziran eta kalera jaitsi ziran bizi izatera. Gero denboraldi baterako erreteruak egon ziran bertan bizi izaten.</li> <li>- Aspalditik dago hutsik eta denboriakin jausi egiñ da.</li> </ul>

## BERLANGOA / Berlangua

- Gaur egun desagertuta dago. Markeskua parian zeguan.
- Berlangua izeneko basarrixan lehelengo aittamena 1857. urtekua da.
- kale-basarrixa zan eta Isasi inguruan zeguan, Isasiko dorrian parian.

## BOLINGOA / Bolingua



**Distantzia:** 1.000 metro

**Altueria:** 165 metro

<b>FITXA TEKNIKIA</b>	Zer daken	Pilar Arizmendiarieta Azpiri (67).
	Datu aitagarririk	<p><b>ANIMALIXAK:</b> Zelaixak errentan dattu eta bertan 50 ardi egoten dira.</p> <p><b>ORTUA:</b> Sasoiko barazkixak (etxerako).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Basarri honen gaiñian lortu ahal izan dogun aittamenik zaharrena 1800ekua da.</li> <li>- Gizaldi hasieran hirutan zatittuta zeguan eta 1925eko hiru ugazabak honetxek ziran: Pedro Ubera, Juan Oiarzun eta Jose Alzelai. Urte horretako agirixetan Bolinbekua izenakin agertzen da. Gaur egun basarriak bi zati dattu. Erdixa basarrixa da eta beste erdixa etxia.</li> <li>- Bertakua zan Patxi "Bolingua", Eibarko brigadan lan egindakua eta Eibarren oso ezaguna izan zana.</li> <li>- Oiñ dala zazpi urte kendu zeben ganaua, baiña lehenagotik, oiñ dala 20 urtetik, bizi dira kalia.</li> <li>- 8-10 metroko erramua dake basarri aldamenian.</li> </ul>



## BUZTINZURI

<b>FITXA TEKNIKIA</b>	Egoeria	Desagertuta. Txontako sarreran zeguan.
	Datu aittagarrixak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Buztinziizena 1812ko agirixetan agertzen da lehelengoz. 1747ko basarri zerrendan agertzen ez danez, seguru asko XVIII. gizaldi amaieran jasoko zan. 1888xan Manuel Baskaran bizi zan bertan.</li> <li>- Basarrixari, bertan bizi ziranen izena zala-ta, Lopezenekua be deitzen jakon. Basarri inguruko lurretaz gaiñera, Txontan eta Karmeliten inguruan be bazekazen Buztinzurik terrenuak eta sagastixak.</li> <li>- Mende honen hasieran oindiokan basarrixa martxan zeguan, baiña gerra aurretik hasi ziran, gitxika-gitxika, basarrixa etxe bihurtzen eta gizaldixan bigarren parte honetan etxia izan da. Azkenian, oin dala 25 urte inguru, etxe barrixak egitteko bota zan.</li> <li>- Ipuruatik urrian baiña Elgetako lurretan Buztingorri izeneko basarri bat be bazeguan.</li> </ul>

## EGAZELAI



**Distantzia:** 600 metro

**Altueria:** 175 metro

<b>FITXA TEKNIKIA</b>	Zer daken	<p>Gonzalo Agirre Jainaga (66), Beatriz Urien Areitiobiritxinaga (60) eta Nerea Agirre Urien (35).</p> <p><b>ANIMALIXAK:</b> Oilluak (30).</p> <p><b>ORTUA:</b> Sasoiko barazkixak eta artua (denderi saltzen detsez euren produktuak). Sagarrak, madarixak, keixak, pikuak, urrak eta melokotoiak. Negutokixa be badake letxuga eta tomatientzat.</p>
	Datu aittagarrixak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Basarrixa 1945. urtekua da. Eusebio Urienek egiñ zeban.</li> <li>- Lehenago ganaua eta txarrixak be euki zittuen baiña 1960. urtian kendu zeben ganaua .</li> <li>- Egazehiizena, Eusebiok ipini zetsan, basarrixan ondoko zelaira hegazkin bat jausi zalako.</li> </ul>

## EGIGUREN / Eguren



**Distantzia:** 2,5 kilometro

**Altueria:** 170 metro

## FITXA TEKNIKUA

Zer daken

Datu  
aittagarrixak

Etxebikotxa da:

**1** - Jose Antonio Andonegi Gabilondo (67), Timotea Etxaniz San Martin (65), Rafael Andonegi Etxaniz (41), Maria Teresa Agote Txurruka (41), Zigor Andonegi Agote (17), Alaitz Andonegi Agote (10), Luisa San Martin Urriategi (91) eta Maria Luisa Etxaniz San Martin (67).

**2** - Felisa Zubiaurre eta lau alabak. Oin dala 42 urte jaitsi ziran kalera.

**ANIMALIXAK:** Behixak (7, esnetarako), oilluak eta astua.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako). Sagarrak, intxaurrek eta mahatsa.

- Basarrixa 1584ko agirixetan agertzen da lehelengoz, baiña urte batzuk lehenago, 1569. urtian, Maria de Egiguren agertzen jaku Santa Ineseko serora moduan.

- Torria be bazekan basarrixa baiña azkenengo uholdiekin jausi egiñ zan. Hiru pisukua zan eta barrukaldia egurrezkua zekan. Eibarren zeguazen 18 dorretxietako bat zan berau.

- Dorretxiak garrantzi haundixa zekan Santiagorako bidian zetozen erromesentzat. Eibarrera heltzen ziranian, herri sarreran dagozen hiru dorretxietako batera (Sagartegieta, Egiguren edo Unzuetara) sartzen ziran jan, garbitu eta atsedean hartzera. Bertatik Arratera igo eta handik Markiña eta Ziortza aldera juaten ziran.

- Eibarko musikari ohien gaiñian dakagun aittamen gitxietako bat Egigurentar batena da. Andres Egiguren parrokixako organujolia izan zan 1666-67. urtietan.

## EGIGUREN ABELETXE / Eguren Abeletxe

<b>FIGXA TEKNIKIA</b>	Egoeria	Hutsik.
	Distantzia	3 kilometro.
	Altueria	250 metro.
	Datu aitagarrixak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jatorriz Egiguren basarrixan abeletxia zan, baiña azken gizaldiotan erreteruak sartu eta basarri moduan erabili izan da.</li> <li>- Basarrixan bizi izandako azkenengo bizilagunak Mari Tere Agirrebeña eta Jose Luis Agirrebeña izan ziran. 1968. urtetik hutsik dago eta piñua dago sartuta inguruetan.</li> </ul>

## EIZKOAGA / Izkua



**Distantzia:** 2,5 kilometro

**Altueria:** 195 metro

<b>FIGXA TEKNIKIA</b>	Zer daken	<p>Pedro Egiguren Larrañaga (70), Petra Agirregomezkorta Txurruka (70), Angel Rodríguez García (51), Arantzazu Egiguren Agirregomezkorta (47), Julen Rodríguez Egiguren (25), Kristina Rodríguez Egiguren (23) eta Leire Rodríguez Egiguren (20).</p> <p><b>ANIMALIXAK:</b> Behiak (8, esnetarakuak), txahalak (20), oilluak (50), ardixak (16), txarrixak (2).</p> <p><b>ORTUA:</b> Sasoiko barazkixak (lantzian behiñ jaisten dira herrira saltzera). Sagarrak eta madarixak.</p> <p><b>LURRAK:</b> 10 hektarea.</p>
	Datu aitagarrixak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- E izkoaga basarrixan lehelengo aittamena 1600. urtekua da.</li> <li>- 1747xan Joseph de Egiguren bizi zan bertan. Azken gizaldixotan be Egigurentarrak bizi izan dira basarrixan. Lehelengo erreteruak ziran eta juan zan mendian Pedro Egigurenen aittittak erosi egiñ zeban.</li> <li>- Oiñ dala 10 urte barriztu zeben fatxada.</li> <li>- Bertako Pedro Egiguren aizkolarixa izandakua da: "Izkua".</li> </ul>

## GISASTUA / Gisastu



**Distantzia:** 1,5 kilometro

**Altueria:** 190 metro

### FITXA TEKNIKUA

Zer daken

Jose Maria Uria Loiola (82) da jabia.

**ANIMALIXAK:** Udan ganaua eukitzen dabe, baiña neguan Elgoibarko basarri batera eruatzen dabe.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

Datu  
aittagarrixak

- 1741ian Francisco de Gabilondo bizi zan bertan.
- Azken aldixan Uriatarrena izan da.

## GORRIARETA

### FITXA TEKNIKUA

Egoeria

Gaur egun desagertuta dago.

Datu  
aittagarrixak

- Basarri honetaz datu bakarra jaso ahal izan dogu. 1601. urteko agirixetan agertzen denez, *Izara* eta *Izkua* basarrixen inguruan *Gorriareta* izeneko basarri bat ei zeguan.

- Txontatik gorako inguru guztiari Areta edo Arrieta deitzen jakonez, inguru hortako basarriren bat izango zan, baiña ez dakigu zein zan, nun zeguan edo gaur egun beste izen batekin ezagutzen dan.

## IPARRAGIRRE / Iparragarr e

FITXA  
TEKNIKIA

<p><b>Egoeria</b></p> <p><b>Datu aittagarrixak</b></p>	<p>Gaur egun desagertuta dago. Sautxi basarrixan aldamenian zeguan.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Basarrixan lehelengo aittamena (Yparaguire) 1809. urteko agirixetan agertzen da.</li> <li>- Pisu biko etxia zan eta autopistia egitteko bota zeben.</li> <li>- Oiñ izen bardiña dakan etxe bat dago, Iparagine Bari, piskat goratxuago.</li> </ul>
--	---

## IPURUAGA / Ipurua



**Distantzia:** 1,5 kilometro

**Altueria:** 205 metro

FITXA  
TEKNIKIA

<p><b>Zer daken</b></p> <p><b>Datu aittagarrixak</b></p>	<p>Bizente Artetxe Ansola (58), Arrate Artetxe Beristain (27), Mikel Artetxe Pascual (33), Aitor Artetxe Beristain (31) eta Nerea Leiaristi Zulaika (28).</p> <p><b>ORTUA:</b> Pikonduak, keixak eta gorostixak sartu barri dittue.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Basarrixan lehelengo aittamena, Ipuruaga izenakin, 1747. urtekua da. Urte horretan Thomas de Gisasola bizi zan bertan.</li> <li>- Inguruko basarri asko eta asko leztxe, Ipurua be Isasiko Markesan jabegokua izan zan gizaldixetan zihar.</li> <li>- Basarrixa Manuel Artetxek erosi zeban gerra ostian, 1950. urte inguruan. Dana dala, aurretik be Artetxetarrak egon ziran bertan errentero.</li> <li>- Autopistia egiñ zanian, ortua eta ganaua kendu zeben. 1973an kalera jaitsi ziran eta 23 urtian zihar hutsik egon da.</li> <li>- Bi etxebizitzako basarrixa da. Momentu honetan basarrixa goititik behera barrizten dihardue.</li> </ul>
--	--

## IRAEGI ABELETXE / Irei Abeletxe

PITXA  
TEKNIKIA

Egoeria

Desagertuta.

Datu  
aittagarrixak

- Jatorriz, *Irei Handikua* abeletxia zan. 1741eko basarri-zerrendan ez da agertzen, baiña 1812. urteko agirixetan, ostera, basarrixa dala agertzen da. Urte horretan zortziña anega arto eta gari jaso zittuen. Sasoi horretan, jabia, *Irei Handikua* basarriko Francisco de Iraegi zan.

- *Irei* basarrixan gaiñian zeguan. Jatorrizko abeletxia aspaldi jausi zan eta gaur egun harrixak besterik ez dira gelditzen. Aldamenian, oiñ dagan abeletxia jaso zeben. Abeletxe barrixan be, gizaldi honetan zihar, errenteruak bizi izan dira, baiña ez da sekula basarrixa izan.

## IRAEGI ERDIK OA / Irei Erdikua



**Distantzia:** 3,5 kilometro

**Altueria:** 275 metro

PITXA  
TEKNIKIA

Zer daken

Dimas Ormaetxea Iñarraiaraegi (83), Juana Andonegi Agirregomezkorta (83), Jose Mari Ormaetxea Andonegi (47) eta Itziar Ormaetxea Andonegi (42).

Datu  
aittagarrixak

**ANIMALIXAK:** Ardixak (15).

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

**LURRAK:** 6 hektarea.

- *Irei Erdikua* basarrixan, 1741. urtian, Antonio de Iñarraiaraegi bizi zala badakigu eta gaur egunera arte bizi izan dira Iñarraiaraegitarrek bertan.

- *Irei Txiki* izenakin be ezagutzen da.

- Bertako aittittak basarrixa saldu egiñ zetsan Juliana Gerrikabeitiari baiña errentero izaten jarraitu zeben. Beranduago, bertako Dimas Ormaetxeak, barriro erosi zeban .

- Basarrixa oiñ dala 20-25 urte barriztu zeben. Antxiñan ohizkuak ziran, baiña gaur egun basarri gitxittan agertzen diran, egurrezko balkoia daka basarrixak oindiokan.

## IRAEGI HANDIK OA / Irei Handikua, Irei Haundi



**Distantzia:** 4 kilometro

**Altueria:** 275 metro

### FITXA TEKNIKUA

**Zer daken**

**Datu aittagarrixak**

Bittor Ariznabarreta Eguren (39), Josune Ibarluzea Eguren (38), Aniaitz Ariznabarreta Ibarluzea (16) eta Naroa Ariznabarreta Ibarluzea (13).

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

- Ireibasarrixan lehelengo aittamena 1493koa da. Hau da, Eibarko basarrixen gaiñian jaso dittugun aittamenetatik zaharrena. Dana dala, Ireileku izen moduan, lehenago be agertzen da, 1339ko agirixetan.

- Iraegi basarrixetatik zaharrena eta garrantzi haundixena euki zebana da. Hori dala-ta, IreiHaundieta Ireizama izenekin be ezagutu izan da. IreiBaztena izena be hartu dau.

- 1741ian Francisco de Iraegi bizi zan bertan eta 1812xan beste Francisco de Iraegi bat.

- Iñaki Ibarluzeak erosi zeban basarrixa oiñ dala 52 bat urte. Bertara ezkondu zan eta oiñ dala 16 bat urte kalera juan zan bizi izatera. Basarrixa hutsik zeguan bertara etorri ziranian.

- Basarrixak, sarreran, 1829. urtia daka idatzitta. Atia barriztu zebenekua izan leike, basarrixa, izatez, askoz zaharragua dalako.

- Iñaki Ibarluzea, adari-jokuetan asko ibilittakua da.

## IRAEGI HEMENDIK OA / Irei Hemetikua

### FITXA TEKNIKUA

**Egoeria**

Gaur egun desagertuta dago. IreiErdkuan aldamenian zeguan.

**Datu aittagarrixak**

- 1812xan Joakin de Iñarrairaegi zan basarrixan jabia. Gizaldi honen hasieran, oster, JuliKantinakua bizi zan bertan.

- Basarrixa erre egiñ zan oiñ dala 70-75 urte eta gaur egun harri batzuk besterik ez dira gelditzen.

## IRARAGORRI / Iragorri



**Distantzia:** 3 kilometro

**Altueria:** 215 metro

### ETXA TEKNIKIA

**Zer daken**

Ignazio Maguregi Martitegi (67), Luisa Moreno Urbietta (63), Alizia Maguregi Moreno (34), Julian Hernandez Vázquez (47), Ainhoa Hernández Maguregi (12) eta Julen Hernández Maguregi (3).

**Datu aittagarriak**

**ANIMALIXAK:** Behiak (2, esnetakuak), oilluak (24), untxiak (8) eta ahuntzak (4).

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako) eta artua.

- Basarrixan lehelengo aittamena 1600. urtekua da. Hamabost urte beranduago Domingo Zabñña Iragorri odol garbixa zekala frogatu zeban eta hidalgixa-agirixa lortu.

- Ignazio Maguregin aittittak erosi zeban basarrixa, Jose Mari Maguregik.

## ISASI BARRENGOA / Barrenengua

- Desagertuta dago. Alfa taillarra daguan tokixan zeguan.
- YssasiBamena izenakin 1747. urteko agirixetan agertzen da lehelengoz eta bertan Ignazio de Atxa bizi zan. Hiru pisuko oso basarri haundixa zan.
- 1812. urtian Nikolas Landazuri da basarrixan jabia. Urte horretan, Barrenengua basarriak hamabiña anega arto eta gari, anega bi gaztaiña eta karga bi sagardau emon zittuan.
- Ego erreka pistina ezagunari parian zeguan. Gerra ostian Alfak hartu zittuan beran lurrak eta 1956. urtian bota zeben.



## ISASIERDIK OA / Isasierdi

- Desagertuta dago.
- Udaletxetik 500 metrora zeguan.
- **Isasierdi** izena 1955. urteko agirixetan agertzen da lehelengoz. Hori da basarri honi buruz lortu ahal izan dogun datu bakarretakua. Seguru asko, Isasi inguruan zeren basarrixetako bati (Barrenengua, Torrekua, Kantoikua...) emoten jakon beste izen bat izango da. Ez dakigu zein basarri zan edo nun zeguan.

## ISASI OLAGIZONGOA / Olagizongua

- Desagertuta dago. Markeskua inguruan zeguan.
- Udaletxetik 500 metrora.
- **Olagizongua** izenakin agertzen da lehelengoz 1842. urteko agirixetan.
- **Berlangua** kale-basarrixan azpikaldian zeguan eta 1853. urtian Isasiko Markesana zala agertzen da urte bereko agirixetan.
- **Makatzanekua** izenakin be ezagutzen zan eta kale-basarrixa zan.

## ISASI TORREKOA / Torrekua

- Desagertuta dago. Torrekua anbulategixa dagan lekuan zeguan. 1966. urtian bota zeben.
- Basarrixan lehelengo aittamena 1914. urtekua da. **IsasiKareaga** eta **IsasiBani** izenekin be ezagutu izan da.
- Aldamenian Isasiko errota (**Isasola**) zeguan.
- Juan zan gizaldiko agirixetan, Isasi inguruan, Errenterokua izeneko basarri bat zeguala agertzen da. Basarri bera izatia izan leike.

## ISASI ZAHARRA / Isasizarr a

- Desagertuta dago. Isasin zeguan.
- Udaletxetik 500 metrora.
- **IsasiBiejo** izenakin agertzen da lehelengoz 1747. urteko agirixetan eta Pedro de Arana bizi zan bertan. 1861. urtian, ostera, orube moduan aittatzen da; ordurako botata edo jausitta zeguan.
- Guztiz garbi ez dagan arren, badirudi **Kantoikua** eta **Torrekua** artian zeguala.

## IZARRA

- Desagertuta.
- Basarri honen aittamen bakarra. 1601. urtekua da eta, bertan, **Eizkoaga** eta **Gomareta** basarrixen artian zeguala agertzen da.

## KAMINOKOA / Kamiñokua

- Desagertuta. Star fabrikian atzekaldian eta Otaola Erdikua inguruan zeguan.
- Udaletxetik 1.000 metrora.
- 1747xan Felix de Gisasola bizi zan basarri honetan. Hori da basarri honetaz lortu ahal izan dogun lehelengo barrixa.
- **Otaola Kamiñokua** moduan be ezagutu izan da eta gerra ostian bota zeben.
- Pedro Azpiri "Eibar" ezaguna bertakua zan.

## KANTOEKOA / Kantoikua

- Desagertuta. Isastone parian, gaur egun Eskola Armerixia dagan lekuan zeguan gitxi gora-behera.
- Udaletxetik 500 metrora zeguan.
- Basarrixan lehelengo aittamena, Casa de la Esquina izenakin, 1747. urtekua da. Sasoi horretan Julian de Etxebarria bizi zan kale-basarri honetan.
- Gerra sasoi botatzen zela.
- Gizaldi hasieran basarri parian erromerixia egiten zuten eta Isasiko Markesa lehioetik begira egoten zuten.

## KASKARRAINGOA / Kaskarreingua

- Desagertuta.
- Udaletxetik 1.000 metrora.
- Ugarteburu izenakin be ezagutzen zuten. Basarrixan lehelengo aittamena 1812. urtekua da, Huertaburu. 1853. urtian Isasiko Markesana zela badakigu.
- Elgetako bide gaitan zeguan, Puma basarri jateko dagan bidegurutzian, polikiroldegi gaitan. Pisu biko etxea zuten. Autopistia egiteko botatzen zuten eta gaur egun txabolak bakarrik gelditzen da.

## KATALANGOIA / Katalangua Behekua

- Desagertuta. Bi pisuko etxea zuten.
- Udaletxetik 1,5 kilometrora.
- Basarri noizkua dan ez dakigun arren, 1736rako tente zeguala badakigu, Loidi Etxebarria izenakin. Parrokixatik behera zeguan guztiari deitzen jakon Loidi sasoi horretan: Loidi iturrirra, Loidi errekoa, Loidi buru, Loidi errota etabar. Gero Loidi izenakin be ezagutu zuten eta 1812ko agirixetan agertzen da lehelengoz Katalangua izenakin. 1741.eko zensuan azaltzen denez, Loidi Etxebarria basarrixan Joseph "El Catalán" izeneko gizon bat bizi zuten eta badirudi horregaittik hartu zebala basarriak Katalangua izena.
- Gerra ostian goratuago beste etxea bat egitterakuan, goikuari Katalangua Goikua deitu jakon eta behekuari Katalangua Behekua.
- Azken gizaldi honetan Narbaizatarrak bizi izan dira bertan. 1925. urtian Pedro Jose Narbaizana zuten eta gero beran ondorengua.

## KATALANGOIA GOIKOIA / Katalangua Goikua

- Desagertuta dago.
- Udaletxetik 1.000 metrora.
- Katalangua basarriko senideren batek, beste etxea bat egin zeban goratuago. Harrezkero basarriari Katalangua Behekua deitu izan jakon eta etxea basarriari Katalangua Goikua. Katalangua Goikuan lehelengo aittamena 1957. urtekua da. Ez zuten benetako basarri, kale-basarri bihurtutako etxea bai.

## LEKAMENDI



**Distantzia:** 1,5 kilometro

**Altueria:** 200 metro

### Datu aittagarrixak

Pedro Mari Arrizabalaga Urzuriaga (48) da jabia.

- Lekam endibasarrixan lehelengo aittamena 1812. urtekua da.
- Felix Astarloak erosi zeban basarrixa.
- Pisu biko etxia da. Beheko pisua eurena da, nahiz eta bertan ez bizi, eta bigarren pisuan errenteruak bizi dira.
- Autopistiak lur zati haundi bat kendu zetsan basarrixari.
- Felix Astarloa, Felix Haundiizenakin be ezagutzen zan, bi metro inguru zittualako. Eibarko brigadan ibili zan biharrian.

## LOIOLA / Loixola



**Distantzia:** 2 kilometro

**Altueria:** 140 metro

## FITXA TEKNIKIA

## Zer daken

Maria Larreategi Gallastegi (80), Migel Agirrebeña Larreategi (53), Rosario Olaberria Urizarbarrena (54), Eva Agirrebeña Olaberria (23), Unai Agirrebeña Olaberria (21) eta Oier Agirrebeña Olaberria (19).

## Datu aittagarriak

**ANIMALIXAK:** Behiak (5, larrerakuak eta 4, esnetarakuak), txahalak (6), oilluak, ahuntzak (4), txarrixa eta astua. Esnia saltzen dabe.

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (lantzian behiñ jaisten dira herrira jenerua saltzera).

**LURRAK:** 20 hektarea.

- Basarrixan lehelengo aittamena 1600. urtekua da, Loyola. Dana dala, 1597. urteko agirixetan Domingo de Loyola izena agertzen da Eibarren eta "arkabuzen" kulatak egitten zittuala dago idatzita agiri horretan.

- Migelen aittittak basarri zaharra idixekin bota eta leku berian barrixa egiñ zeban.

- Basarrixa oiñ dala hiru urte barriztu zeben eta antxiñako pistola bi topatu zittuen bertan.

- Pako "Loixola" probalari ezaguna izan zan.

## LOIOLA ABELETXE / Loixola abeletxe



Distantzia: 3 kilometro

Altueria: 280 metro

**PIIXA  
TEKNIKIA**

<p><b>Egoeria</b> <b>Datu aittagarrixak</b></p>	<p>Txabolia.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jatorriz Loxola basarrixan abeletxia izan zan. Loxola basarrixan lehelengo aittamena 1600ekua dan arren, Loxola Abeletxe basarrixana ez da 1812ra arte agertzen. Urte horretan Loxola basarrixan jabe berbera zekan, Agustin de Loiola.</li> <li>- Loxola Abeletxean jaixotako Maria Agirrebeñak kontatu deskuanan arabera, beran aittitta, Juan Mateo Agirrebeña, Loxolan jaixo zan eta bera izan zan abeletxia hartu, haunditu eta basarri bihurtu zebana.</li> <li>- Azken gizaldi honetan errenteruak bizi izan dira bertan. Oñ dala 15 urte inguru erre egiñ zan eta gaur egun txabolia da.</li> </ul>
---	---

## MAKALARROKOA / Makalarrokua

**PIIXA  
TEKNIKIA**

<p><b>Egoeria</b> <b>Datu aittagarrixak</b></p>	<p>Desagertuta. Kantoi azpitan zeguan.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Basarriken ondorengo batek esan deskuanan arabera, beran amaman aitta errementarixa zan. Zaldixei perrak ipintzerakuan, hankatik oratu eta "Ezin haiz geldi egon, makalarruori?" txillixo egitten ei zetsen. Hortik zetorkixon Makalarro gatzizena perratzailliari eta baitta beran etxiari be.</li> <li>- Basarri honen lehelengo aittamena 1860kua da. Leku berian urte horretara arte Isasizana izeneko beste basarri bat zeguan eta 1861. urteko agirixetan, ostera, desagertuta daguala agertzen da. Oso garbi ez dagan arren, badirudi Makalarrokua Isasizanan beste izen bat izan leikiala, edo zaharra jausi eta gero aldamenian egindako beste basarri.</li> <li>- Makalarrokua 1905. urtian erre zan. Erre arte, Florentzio Jauregi, Maria Aranzabal eta euren familixia bizi ziran bertan.</li> </ul>
---	--

## MAKAZKOA / Makazkua



### FITXA TEKNIKUA

Egoeria

Desagertuta. Makazkua kalia.

Datu  
aittagarrixak

- Aztertu doguzen agirixen artian basarri honetaz zeozer diñuan zaharrena 1782kua da. Urte horretan Isasiko Markesan jabegokua zan.
- Nahiz eta berezko izena Makazkua izan, azken gizaldi honetan, Abontza basarriko jendia jaitsi zanez bertara bizi izatera, Abontza izenakin izan da ezagunagua.
- Oñ dala 15 urte inguru bota zeben Egigurentarren etxiak egitteko. Dana dala, basarriko lanak lehenagotik zekezzen lagata.
- Astelena frontoian atzekaldian zeguan.

## MARRUKOKOA / Marrukokua

### FITXA TEKNIKUA

Egoeria

Desagertuta dago. Bidebarrieta eta Errekatxu artian zeguan.

Datu  
aittagarrixak

Gitxi dira basarri honetaz jaso ahal izan doguzen datuak. Lehelengo aittamena 1812. urtekua da eta 1901ian bota egiñ zeben. Mutua basarrixan azpikaldian ei zeguan.

## MERTXETE



**Distantzia:** 4 kilometro

**Altueria:** 230 metro

<p><b>Zer daken</b></p>	<p>Julian Agote Garate (74), Josefa Beristain Albizu (66), Jose Luis Agote Beristain (39), Maria Begoña Plazakorta (35) eta Mikel Agote Plazakorta (11).</p> <p><b>ANIMALIXAK:</b> Behiak (4, esnetarakuak), txahalak (4), ardixak (90), oilluak (15), untxiak eta astua. Eusko Labela dake eta esnia saltzen dabe plazan.</p> <p><b>ORTUA:</b> Sasoiko barazkixak (lantzian behiñ jaisten dira plazara). Sagarrak eta intxaurrak. Mendixan piñua gehixen bat eta pago eta haritz banaka batzuk.</p> <p><b>LURRAK:</b> 6 hektarea.</p>
<p><b>Datu aittagarrixak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 1747kua da basarri honen gaiñian jaso ahal izan dogun lehelengo aittamen idatzixa. Urte horretan Joaquin de Telleria bizi zan basarrixan.</li> <li>- Juan zan gizaldi amaieran Elgoibarko Ignazio Agotek erosi zeban eta harrezkero Agotetarrena izan da.</li> <li>- Oiñ dala 4 urte inguru barriztu zeben azkenengoz.</li> <li>- Agustin Agote "Mertxete", beran indar eta teknikia zala-ta, oso probalari ezaguna izan zan gerra ostian.</li> </ul>

## MUTIOLA

- Desagertuta. Mutiolan zeguan.
- Udaletxetik 500 metrora.
- *Mutibla* basarrixan barri zeozer aittatzen daben lehelengo agirixa 1777kua da. Dana dala, inguruari askoz lehenagotik (1584) deitzen jakon *Mutibla*.
- Iturribide kalian (gaur Bista Eder) zeguan, Portalea kultur-etxia dagan tokixan.
- Gerratia baiño lehentxuago bota zan.

## MUTIOLA AZPIK OA / Mutiola Azpikua

- Desagertuta dago. Errekatxu inguruan zeguan.
- Udaletxetik 500 metrora.
- Oso gitxi dira basarri honen gaiñian lortu ahal izan doguzen datuak. Dakigun gauza bakarra, *Mutibla* basarrixan azpikaldian zeguala da.
- Lehelengo aittamena 1862kua da eta azkena 1887kua. Ez dago oso garbi basarrixa edo kale-basarrixa zan, nun zeguan eta noiz bota zeben.

## OTAOLA ABELETXE / Otolá Abeletxe

- Jausitta.
- *Otolá Bazternekuen* jabegokua zan. Unibersidade Laboralan eta Elgetako bidian artian zeguan. XIX. gizaldixan erre egiñ zan eta gaur egun harri pillo bat besterik ez da gelditzen.

## OTAOLA BAZTERRA / Otolá Bazterra

- Desagertuta dago. Unibersidadia dagan lekuan zeguan.
- Udaletxetik 2 kilometrora.
- Eibarren zeguazen 18 oiñetxietako bat zan *Otolánekua*. Jatorriz dorretxia zan eta holan agertzen da 1584ko agirixetan. *Otolá-torra* eta bertoko bizilagunak oso ezagunak izan ziran Eibarren Erdi-Aruan. *Domingo de Otolá* alkate izan zan 1612. urtian.
- 1784ko agorrillan 29xan, frantsesen kontra egiñ zan *Olanegako gudan*, erre egiñ zan. Behekaldia osatzen zeben 3 metroko hormak bakarrik geratu ziran tente eta horren gaiñian basarrixa jaso zeben. Eibarko mugan zeguanez, *Otolá Bazterra* izena emon zetsen.
- Dorretxia basarri bihurtu eta gero be, Otaolatarren jabegokua izaten jarraitu zeban 150 urtetan zihar, XIX. gizaldi erdikaldian, Maria Josefa Lasartek erosi zeban arte. Isasittik Ermura bittartian Isasiko Markesana ez zan etxe bakarretakua zan.
- 1934an erre eta goittik behera barriztu bihar izan zan. 1965. urtian, Unibersidadia egitteko, bota egiñ zan. Ordura arte, Maria Luisa Maitre-Jean Gorosabel eta beran hiru seme-alabak bizi ziran bertan.
- Etxebizitza bi zekazen eta bixetako baten *Ameta* basarrittik etorritako jendia bizi izan zanez, *Ametanekua* izenakin be ezagutzen zan. Hirugarren izen bat be bazekan: *Otolá Barrena*.
- Ibur inguruko lur gehixenak eurenak ziran eta harrobixa zekan basarri bakarretakua zan. Basarrixa bota eta gero be, harrobixa martxan egon da. Bertatik urten dira Berrizko Klaustua, Oñatiko Unibersidadia eta beste hamaika komento egitteko harrixak. *Egieta* eta *Losakantera* izenekin ezagutu izan da.



## OTAOLA ERDIKOA / Otolerdi



**Distantzia:** 1.000 metro

**Altueria:** -

FITXA TEKNIKIA

### Datu aitagarrixak

Alejandra Urkia Gorritxategi (73), Begoña Garro Urkia (46), Pedro Vega Andia (48), Antxon Vega Garro (20), Miren Vega Garro (16) eta Maitane Vega Garro (11).

- Basarrixan lehelengo aittamena 1747kua da, Otaola del m edio izenakin. Urte horretan Andres de Ibarra bizi zan bertan. Badirudi sasoi horretan eta juan zan gizaldi amaierara arte Isasiko Markesana izan zala.

- Juan zan gizaldixan, frantsesak Eibarren sartu ziranetako baten, basarrixa erre egiñ zan eta barrixa egiñ bihar izan zeben.

- Prantxi Urkia, basarriko semia, ezaguna zan Eibarren, zezen plazan dibisak sartzen ibiltzen zalako.

## SANSABURU



FITXA TEKNIKIA

### Egoeria

Desagertuta.

### Datu aitagarrixak

- 1597. urtekua da basarri honen gaiñian lehelengo aittamena. Mutio la basarrixan gaiñekaldian zeguan eta itturrixa zekan aldamenian.

- 1741ian Paulo de Ubera zan bertoko bizilaguna.

- Gerra ostian haundittu eta etxe bihurtu zan eta, urte batzuk beranduago, etxe barrixak egitteko bota.

## SARASUEGI / Sautsi Hemetikua



**Distantzia:** 1.000 metro

**Altueria:** 140 metro

### FIGXA TEKNIKUA

#### Datu aittagarriak

Jose Luis Urizar Murua (67).

- Sarasuegi basarrixan lehelengo aittamena 1747. urtekua da eta urte horretan Joseph de Loiola bizi zan bertan.
- Etxe parian, matadero moduan erabiltzen zan txabola txiki bat zekan. Gerra aurretik haunditu eta SautsiHandikua izenakin ezagutzen diran etxiak egiñ zittuen gaiñian.
- SautsiHandikua ez da basarrixa izan, baiña SautsiHemetikuan oiñ dala 15 urte kendu zittuen ganaua eta ortua.

## TELLERIA / Tellerixa

- Desagertuta. Txontako sarreran zeguan.
- Udaletxetik 2 kilometrora.
- Basarri honetaz batu ahal izan dogun lehelengo aittamena 1747. urtekua da. Urte horretako agirixetan Tegherà de Arèta izenakin agertzen da. Badirudi, sasoi horretan TeLerà basarrixan teillak egitten zittuela eta hortik TeLerixa edo Tegherà izena. Badakigu, 1759. urtian Francisco Aguirrek, Eibarren, 8.000 teilla eta 4.000 ladrilloko labakada bi egiñ zittuala. 1.000 teilla 80 errialetan saltzen ziran eta ladrilluak 60 errialetan.
- Jatorriz teilla-fabrikia zana, urtiekin, gitxika-gitxika basarri bihurtzen jua zan eta holan ezagutu izan da azken 150 urtiotan. Pagoagatarrena zan eta gizaldi honen hasieran Uzkuzei basarriko semia zan Timoteo Idarraga eta Andresa Zulaikak erosi zeben.
- Txontan zeguazen bolatoki bixetako bat TeLerixa basarrixan atarixan zeguan eta han batzen ziran ingurukuak bola-jokuan jardutera.
- Buztin zuri basarrixan gaiñekaldian zeguan, Azurtzatic jaisten dan errekiian eskumatara. Gerra ostian oindiokan martxan ezagutu dogu. Gehixen bat txarrixak eta oilluak eukitzen zittuen eta aldamenian ortu txikixa. Oiñ dala 20 urte inguru bota zeben.
- Nahiko etxe zaharra zanez, TeLerixazana izenakin be ezagutzen zan basarri hau. Horretaz gaiñera, parian zeguan etxe luze bati be Telleria esaten zetsen.

## TUTULU BEHEKOA / Tutulu Behekua

- Desagertuta. San Kristobal auzuan gaiñian zeguan.
- Udaletxetik 2 kilometrora.
- Basarrixan lehelengo aittamena 1776. urtekua da, Karkinzano izenakin. Badirudi hori zala basarrixan jatorrizko izena, baiña jua zan gizaldittik aurrera Tutulukua izena hartu zeban eta harrezkero izen horrekin ezagutu izan da Eibarren. 1813. urteko agiri batzuetan, hirugarren izen batekin be agertzen da: Sabadorekua.
- 1927xan, Errezilkua zan Juan Odriozolak erosi zeban basarrixa. Gerra ostian, 1948xan, basarrikuak etxe barrixa jaso zeben euren lurren beheko partian eta Aizarna izena emon zetsen etxiari. Izen hori, Juan Odriozolan gatzizenetik dator. Juan Odriozola bertsolarixa zan eta "Aizarna" izenakin ezagutzen zan bertso-munduan. Aizarna etxia Indalezio Ojanguren kalia dago eta tabernia izandakua da.
- Ganaua 1955. urtian kendu zeben eta urte batzuk beranduago kalera jaitsi ziran bizi izatera. Basarrixa autopistia egitteko bota zeben 1970. urte inguruan.
- Gaur egun, Aizarna etxian bizi dira Tutuluko Maria Agirrebeña, Jesusa Odriozola Agirrebeña, Pakita Odriozola Agirrebeña eta euren familixia.

## TUTULU GOIKOA / Tutulu Goikua

- Desagertuta. San Kristobal auzuan gaiñian zeguan.
- Udaletxetik 2 kilometrora.
- Tutulu basarrixan gaiñian, jua zan gizaldixan, Tutulu Goikua basarrixa jaso zeben.
- Hau be autopistia egitteko bota zeben 1970. urte inguruan. Bota arte, Ildefontso Unamunon familixia bizi izan zan bertan.

## TXALTXA

- Desagertuta. Isasixan zeguan.
- Udaletxetik 100 metrora.
- Txaltxa jatetxian atzekaldian zeguan, Isasi eta Zezen plazian artian. Beran lurrak Mekolaraño heltzen ziran.
- 1860. urteko papeletan, inguru horretan *Kam ñokoatxebami* izeneko basarri bat zeguala agertzen da. Badirudi, basarri bera dirala.
- Gerra ostian bota zan etxiak egitteko.

## TXALTXAKOA / Txaltxakua



- Jausitta. Maxi-Eroski aldamenian dago.
- Basarri hau izen birekin ezagutu izan da, *Txaltxakua* izenakin eta *O tolaetxebami* izenakin. Bigarren izen horrekin agertzen da 1584ko agiri zaharretan.
- Gerra ostian etxebizitzetan banatu zan eta geroztik errentero mordua bizi izan da bertan. Oñ dala 25 urte inguru, erdixa erre egiñ zan.

## UBAO

- Desagertuta.
- Udaletxetik 1.000 metrora.
- Ipuruako Santa Ines ermittian aldamenian zeguan eta beran historixia komentuanari lotuta juan zan. Ezagutu be, Santa Ines izenakin ezagutzen zan.
- Lehelengo aittamena 1747kua da, *Hubao-Santa Ynes* izenakin. Gerra ostian bota zan.

## UBIDIETA / Ubitxa

- Desagertuta.
- 500 metrora.
- Nahiz eta jatorrizko izena Ubideta izan, Ubitxa izenakin izan da ezagunagua azken gizaldixotan. 1747ko agirixetan agertzen da lehelengoz eta urte horretan basarrixan bizi zana Joseph de Apellaniz zala dakigu.
- Urkiko elixian eta Ubitxako iturrizan artian zeguan, gaur egun Ubitxa auzua danan sarreran. Lurrak arma-probalekuraño heltzen ziran. Bertokuak oso ezagunak ziran Eibarren “Artuak” saltzen zittuelako. Labia zeken basarrixan eta kalez kale ibiltzen ziran asto-gaiñian arto-hurunakin egindako arto-opillak (“artuak”) saltzen.

## UNTZETA-ETXEBARRI

- Desagertuta. Txontan zeguan.
- 1.000 metrora.
- Txontan zeguan basarri hau oiñ dala 40 urte inguru bota zeben. Autopistian zubixa baiño goratxuago zeguan eta azkenengo bizilagunak Josefa Urkia eta Benito Unzetabarrenetxea izan ziran.
- Txontan zeguazen bolatoki bixetako bat Untzeta basarrixan atarixan zeguan eta bertan batzen ziran ingurukuak bola-jokuan jardutera.

## URBANGOIA / Urbangua

- Desagertuta. Ipuruan zeguan.
- 1747ko agirixetan, Alberdi izeneko gizon batek, Ipuruan Arginza izeneko basarri bat barriztu zebala aittatzen da. Juan zan gizaldiko agirixetan be, sarri agertzen da Arginza edo Urbangua izeneko basarrixa. Basarrixaren gaiñian azkenengo aittamena 1868kua da eta hortik aurrera basarrixakin zer pasatu zan ezin izan dogu jakin. Dirudenez, erre egiñ zan, baiña ez dakigu noiz.
- Inguruko basarrixetan galdetu eta gero, badirudi Urbangua Tutulu Behekuan inguruan zeguala edota basarri berbera izan zeikiazel.
- 1916ko agirixetan agertzen danez, Urbangua basarrixan aldamenian Urbanguabari izeneko kale-basarrixa jaso zan urte horretan. Etxe honekin hortik aurrera zer pasatu zan ez dakigu.

## URKIDI BARRENA



**Distantzia:** 1.000 metro

**Altueria:** 170 metro

### FITXA TEKNIKIA

**Egoeria**

Etxe bihurtuta.

**Datu  
aittagarrixak**

- Basarri honen jatorrizko izena *UrkiDiBarrena* zan arren, askoz ezagunagua izan da *Txatxingua* izenakin; *Untzeta* eta *Sebastianenekua* izenekin be ezagutu izan da.

- 1945. urte inguruan barriztu egiñ zan, ganaua kendu eta etxe bihurtu. Harrezkero, *Ospasenekua* izenakin ezagutzen da, bertako alaba *Mendaroko Ospas* basarriko semiakin bertara ezkondu zalako.

## URKIDI-GARRO

- Desagertuta.
- Basarriaren lehelengo aittamena 1812kua dan arren, askoz lehenago, 1498ko agirixetan, kanposantu inguruko lurreri *UrkiDiSano* deitzen jakuela agertzen da.
- 1865. urtian kanposantua Garro-soruan egittia erabagi zan.
- Urkin, *Ubitxa* basarriaren aldamenian zeguan, *UrkiDiSarasketan* aldamenian. Basarriaren Aranberritarrena zan baiña gizaldi honetan Fernando Atxa eta Mertxe Zubiarremerteria bizi ziran bertan. Hori dala-ta *Fernanenekua* izenakin izan da ezagunagua. Terrenuak kanposantoruntz zittuan.
- Basarriko azkenengo biztanliak *Sumendiako Jazinto Baskaranen* familixia eta *Antonio Larrarte* grabadorian familixia izan ziran.
- 1857. urtian Urkin *UrkiDiKapaxingua* izeneko basarri bat zeguala badakigu. Urkiko basarrietan galdetu eta gero, *Kapaxingua* izeneko basarririk ez dau iñork ezagutzen. Badirudi *UrkiDiGarro* beste izen bat izen leikiala.
- 1950. urte inguruan bota zebeñ etxiak egitteko.

## URKIDI GOENGOA / Urkiguena

- Desagertuta.
- Udaletxetik 2 kilometrora.
- Basarriaren gaiñian lortu ahal izan dogun daturik zaharrena 1747kua da (urte horretan *Jazinto de Areizaga* bizi zan bertan), baiña seguru asko lehenagokua zan.
- 1960xan *Basilio San Migelek* erosi egiñ zetsen ordura arte bertoko jabiak ziran *Oiarzabaltarreri*.
- 1971. urtian autopistia egitteko bota zan arte, martxan egon zan. Sasoi horretan *Andres Garetxana* eta *Maria San Migel* bizi ziran bertan.

## URKIDI KURUTZEK OA / Kurutzekua



**Distantzia:** 1.000 metro

**Altueria:** 180 metro

**Zer daken**

**Datu  
aittagarrixak**

Migel Zarrabe Ansola (75) eta Gregoria Elkoroiribe Osoro (74).

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

- 1742kua da basarrixan lehelengo aittamena, baiña seguru asko zaharragua izango da.

- Urkiko San Lorenzo ermittia zekan urrian. Hori ermita hori gerran erre zan eta autopistiakin bota zeben. Gaur egun oindiokan, ermita aldamenian zeguan eta basarrixari izena emoten detsan kurutze haundixa ikusi leike. Azurtzara doian bidia be bertatik pasatzen da.

- 1940. urtian Domingo Zarrabek erosi zeban.

- 1963an 3 etxebizitzatan banatu zan eta harrezkero goiko bi etxebizitzetan errenteruak bizi dira.

## URKIDI SARASKETANEKOA / Sarasketanekua



**Distantzia:** 1.000 metro

**Altueria:** 155 metro

### FITXA TEKNIKUA

**Zer daken**

**Datu aitagarrixak**

Karmen Amuategi Sarasketa (55), Jesus Ugarteburu Eizagirre (68), Ibon Ugarteburu Amuategi (31) eta Aitor Ugarteburu Amuategi (27).

**ORTUA:** Sasoiko barazkixak (etxerako).

- Basarrixan lehelengo aittamena 1.812kua da. Urtietan zihar, Urkidi Sarasketanekua, UrkidiAndres, Gomaneakua eta Amuategiizenegaz ezagutu izan da, bertan bizi zan jendian arabera.
- Juan zan gizaldi erdikaldian erosi zebenetik, Sarasketatarrena izan da beti eta gaur egun be euren ondorengiak diran Amuategitarrak bizi dira bertan.
- Lurrak Urki eta San Kristobal inguruan zekazen. Gerra ostian, euren lurretan etxiak egiñ ziran eta gitxika-gitxika basarrixa etxe bihurtzen jua zan. Ganaua 1950-1955 inguruan kendu zeben.

## URKIDITORRE / Urkitorria



**Distantzia:** 1.000 metro

**Altueria:** 170 metro

### FITXA TEKNIKUA

**Egoeria**

**Datu aitagarrixak**

Hutsik.

- Izenak argi lagatzen daben moduan, etxe hau jatorriz dorretxia zan. Holan agertzen da 1747ko agirixetan. Dana dala, jua zan gizaldittik aurrera, basarri lanetarako be erabili izan da (holan marraztu zeban Lukas Alberdik 1935ian) eta azken urtietan Lukas Alberdi artista eza-gunak taller eta erakustoki moduan erabili izan dau.
- Azken gizaldi honetan Solagaistuarrena izan da eta Tangilangua edo Takilangua izenekin be ezagutu izan da.



## URKIZUETXEBERRI / Etxebarri

- Desagertuta.
- Basarri hau Karmen kaleko 9-13 zenbakixen inguruan zeguan, Ego erreka baztarran, eta Urkizuko errota zekan aldamenian.
- Badakigu errota 1584rako martxan zeguala (Urkizua), baiña basarrixan barri ez dakagu 1747ra arte. Urte horretan Pedro de Leturiondo bizi zan bertan.

## URKIZU TXIRRITXONGOA / Txirritxongua

- Desagertuta. Urkizu 20xan zeguan.
- Txontako sarrerian aldamenian zeguan, Buztinzuribasarrixan parian. Badirudi kale-basarrixa zala.
- 1860ko datuen arabera, Txirritxonguan Bautista Uberuaga, beran seme-alaba Jose Martin eta Josefa Antonia eta semian andra eta seme-alabak bizi ziran.
- Etxiak egitteko bota zan gerra ostian.

## URKIZU UBERUAGA

- Desagertuta. Urkizun.
- Urkizuko zubixan aldamenian zeguan kale-basarri hau.
- Bertan bizi ziranak Uberuagatarrak ziralako hartu zeban beran izena basarri honek. 1809xan Migel de Uberuaga bizi zan bertan eta 1855ian Juan Domingo de Uberuaga.
- Aztertutako idatzixetan agertzen danez, Urkizun Zubiaurre izeneko kale-basarri bat be bazeguan. Badirudi bixak basarri bera zirala.

Liburu hau 1997ko abuztuan 25ian amaittu genduan.  
1.000 ale kaleratu ditugu.  
EIBAR

